

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

4341

180/2012 DEKRETUA, irailaren 25ekoa, Estatuko Administrazio Orokorrak Pasaia Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan duen kide bat kendu eta beste bat izendatzeko dena.

Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak interes orokorrekotzat jotako portuak arautzen ditu atariko tituluaren II. kapituluaren; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, Bilbokoa eta Pasaia Portua sartzen ditu portu horien artean.

Estatuaren lurralde-antolaketa ikusita, eta interes orokorreko portuek bakoitzak bere autonomia-erkidegoan duten eragin ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak zenbait neurri ezarri ditu erkidegoek portu-agintaritzen antolakuntzako egituretan parte-hartze handiagoa izan dezaten, agintaritza horiek baitira portuak zuzentzen dituzten organo publikoak.

Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.1 eta 30.2 artikuluan ezarritakoaren arabera:

«1.– Administrazio Kontseilua hurrengo kideek osatzen dute:

(...)

b) Berezko kide batek; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Gutxienez 10 eta gehienez 13 kidek. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da kopuru hori. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiriei dagokie kopurua ezartzea, baita kideak izendatzea ere.

2.– Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek, aurreko paragrafoko c) idatzi-zatian aipatu diren kideak izendatuko dituzte hurrengo irizpideak errespetatuz:

a) Estatuko Administrazio Orokorra ordezkatzeko dute itsas kapitainak ez ezik, beste hiru kidek, eurentariko bat estatuko abokatua izango dela, eta, beste bat, Estatuko Portuak erakunde publikokoa.

b) Autonomia-erkidegoa kide horietako lauk eta lehendakariak ordezkatzeko dute.

c) Kanariar uharteetan, kabildo bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuko zerbitzugunea hartzen duten udalerriek kontseiluaren gainerako kideen % 33ko ordezkari izango dute. Zerbitzugunea udalerriri batean baino gehiagotan kokatuta egonez gero, ordezkari izango du, lehenik, portu- agintaritzak administratutako portuari edo portuei izena emandako udalerriri edo udalerriei egokituko zaie; ondoren, gainerako udalerriei, zerbitzugunearen eraginpean duten azalerarekiko proportzioan.

e) Kontseiluko gainerako kideen % 66 honako hauen ordezkari izendatuko dira: Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberei, enpresa- eta sindikatu-erakundeei, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoei.

Kideen izendapena nahitaez egin beharko da administrazio-kontseiluan ordezkatuta dauden administrazio publikoen eta erakunde nahiz antolakundeen proposamena kontuan hartuta. Estatuko Administrazio Orokorraren kasuan, proposamen hori Estatuko Portuak erakunde publikoaren lehendakariak egingo du.

Administrazio-kontseiluko kideen izendapenek, 1. paragrafoko c) idatzi-zatiak aipatutakoek, lau urteko iraupena izango dute, berriztatzeko aukerarekin, hurrengo paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Kontseiluko kideak kargutik kentzea autonomia-erkidegoko organo eskudunak erabakiko du, mahaikide horiek ordezkatzeko dituzten organizazio, antolakunde eta erakundeek hala proposatuta.»

Arau horietan ezarritakoa betetzeko, Estatuko Portuen lehendakariak Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan Estatuko Administrazio Orokorra ordezkatzeko duen kide bat kentzeko proposamena jakinarazi dio Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari.

Ondorioz, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat, eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluan 2012ko irailaren 25ean onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Ondoren zehazten den pertsona Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko kide kargutik kentzea, aipatzen den zuzenbide publikoko ente juridikoak eskatuta:

1.1.– Estatuko Portuen Lehendakaritzak eskatuta:

– Jesús Poncela Pardo jauna

2. artikulua.– Ondoren zehazten den zuzenbide publikoko ente juridikoak eskatuta, eta irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.2.e) artikuluan aurreikusitako moduan, jarraian adierazten den pertsona Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko kide izendatzea, haren ordezkari izateko:

2.1.– Estatuko Portuen Lehendakaritzak eskatuta:

– Enrique Álvarez Fanjul jauna

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau kargugabetzea eta izendapen berria Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari jakinarazten zaizkion egunetik aurrera sartuko da indarrean, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko irailaren 25ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.